

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Hortz-besaulki inklusiboak bere balio-proposamena bete dezan, bezeroengana eraginkortasunez irits dadin eta diru-sarrera iraunkorrak sor ditzan, funtsezko hiru jarduera-multzo handi definitu dira: produktuaren ekoizpena, arazoak konpontzea eta euskarria, eta plataforma digitala.

Lehenik eta behin, produkzio-jarduerak hortzetako besaulki ergonomikoaren eta inklusiboaren diseinua, garapena eta fabrikazioa hartzen dituzte. Produktua diseinatzeko, kontuan hartzen dira mugikortasun urriko pazienteen behar espezifikoak, espektro autistaren nahasmenduak edo sentsibilitate sentsoriala, eusteko sistema seguruak, komunikazio-tableta integratua eta euskarri artikulatuak. Merkaturatu aurretik, prototipoak eta proba funtzionalak egiten dira. Fabrikazioaren barruan sartzen da osagai guztiak mihizatzea, kalitate-kontrolak egitea eta beharrezko ziurtagiri medikoak lortzea, segurtasun-, higiene- eta erresistentzia-araudiak betetzen direla bermatuz. Era berean, klinika eta zentro espezializatueta besaulkiaren logistika, biltegiratzea, entregatzea, instalazioa eta abiaraztea kudeatzen dira.

Bigarrenik, arazoak ebazteko eta euskarria emateko blokeak besaulkia pazientearen ezaugarrien arabera pertsonalizatzen du, eusteko sistemak eta tabletaren konfigurazioa behar zehatz bakoitzera egokituta. Gainera, mantentze-lanetarako eta laguntza teknikorako zerbitzu bat eskaintzen da, aldizkako berrikuspenak, softwarearen eguneratzeak, piezen ordezkapena eta laguntza espezializatua barne hartzen dituen. Horrez gain, dentistei eta laguntzaileei prestakuntza eta laguntza ematen zaie, besaulkia behar bezala erabiltzen dela eta behar bereziak dituzten pazienteei arreta egokia ematen zaiela ziurtatuz. Produktuaren etengabeko hobekuntza kliniken eta pazienteen feedbacka jasoz eta analizatuz bermatzen da, diseinuaren bilakaera etorkizuneko bertsioetan ahalbidetuz.

Azkenik, plataformaren eta ekosistema digitalaren blokeak online plataforma baten garapena eta kudeaketa biltzen ditu. Plataforma horrek eskuliburu-entzako sarbidea, euskarri teknikoaren eskaera, gorabeheren jarraipena eta kliniken eta enpresaren arteko komunikazioa errazten ditu. Tabletean integratutako komunikazio-softwarea aldian-aldian eguneratzen da, eta pazienteen profilak eta desgaitasun-mota desberdinetarako berariazko tresnak ditu. Gainera, aliantzak kudeatzen dira laguntza-teknologien fabrikatzaileekin eta klinika laguntzaileekin, zerbitzuak behar bezala integratzen direla ziurtatzeko. Osagarri gisa, sistemaren erabilerari buruzko datuak aztertzen dira, betiere pribatutasuna errespetatuz, zerbitzua optimizatzeke eta pazientearen esperientzia hobetzeko.

